

ABENDU ALDIKO 4. DOMEKEA – C
Caritasen jardunaldia
«Erdibanatu eta ugaritu»

Sarrerako oharra

Anai-arrebok: Gabonak atarian doguz. Gaur Abendu aldiko azken domekea dogu eta, beste behin be, gure begiak Mariagan, itxaropenaren Amabirjinagan jarteko esaten jaku. Prest egon gaitzala Maria lez, Jaunari harrerea egiteko eta haren bideetatik joateko, Bera dogulako osotasuna.

Caritasek dei egiten deusku gaur, “erdibanatu eta ugaritu” esanez, Gabon aldiko bere kanpainan parte hartu daigun. Pobretasuna asko hazi eta hedatu da eta era askotara islatzen da: zailtasunak diru-laguntzak jadesteko, estutasunak etxebizitzari jagokonez, senideez kargu egitean... Lagun askok ez dau inor ondoan baina geure arteko bihurtu daikeguz.

Abestian bat eginik, ospakizunari ekingo deusagu.

Sarrerako abestia: Kanta daigun guztiok

Abadearen agurra

Gu salbatzera datorren Jauna, zuekin.

Koroaren zeinua eta damu otoitza

Koroaren laugarren kandela biztean, Maria gure Amagan pentsatuko dogu. Inork ez dau sekula berak besteko irrika eta maitasunez itxaron. Honan prestatu gura dogu geure burua: senidetasunean eta konpromisoan; balio honeek garatuz, gizatasun gehiago dauan eta emoteko gauza dan gizartea egin ahal izango dogu danon artean.

- Ilunpetan bizi diranei argi egitera zatozan munduaren argia. Erruki, Jauna.
- Zure herria egiaren eta zuzentasunaren bideetatik eroatera zatozan gizadiaren gidaria. Kristo, erruki.
- Gure makaltasunaren zauriak sendatzera zatozan biziaren iturria. Erruki, Jauna.

Oharra irakurgaiei

Lehenengo irakurgaietan, Mikeas profetak Mesiasen jaiotza iragarten dau, gertatu baino gizaldi batzuk aurretik. Belen izeneko herririka txiki eta ezezagunean jaioko da. Herri guztiak batuko ditu; bakea emongo deutse. Izan be, Jaunaren indarra txikitasunean, apaltasunean adierazoten da.

Bigarren irakurgaietan, Hebrearrei idatzitako gutunaren egilearen arabera, Kristo, Abade Nagusi bakar eta benetakoa da kristinai izateko jarraitu behar dogun eredu. Haren antzera, *“hemen nozu zure nahia beteteko”* esateko gauza izan beharko geunke.

Jainko herriaren otoitza

Jaunaren etorreraren zain, bat egin daigun otoitzean, Berak barritu daian gizadiaren bidea.

1. Elizaren alde. Maria bere itzalaz estali eban Espiritu Santuak adorea emon deiela kristinatu alkatteei eta etsipenetik atera daizala, zentzunez beteten dituan fedea ilusinoz transmititu daien. Eskatu deiogun Jaunari.
2. Txiroengan eta jaiok bakartadean eta goibel biziko dabezanengan ikusi daigula desbardin eta baztertuagan gizon egin zan Jaungoikoa eta ez daigula inor etorkizun barik itzi. Eskatu deiogun Jaunari.
3. Caritas eta txirotasunaren aurka eta zuzentasunaren alde jarduten dabenak sendo iraun daiela euren eskaintzan eta euren lekukotasunak bultzatu gaizala Gabonak alkartasunez bizitzen. Eskatu deiogun Jaunari.
4. Gu guztion alde; Jaunak eskuzabaltasuna eta maitasuna emon deiguzala pobretasunez eta behartasunez jantzitako egoerez arduratzeko eta txiroak eta behartsuak gure artera ekarteko. Eskatu deiogun Jaunari.

Jaungoiko gure Jauna; Amabirjinaren fedea eskertuz, Jaunaren Ama lez bedeinkatu dozu emakume guztien artean. Bera bitarteko dogula, entzun gure erreguak eta antzeman daiguzala zure bisitaren zantzuak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Oharra dirua batu aurretik

Erdibanatzen badogu, ugaritu egiten gara. Gure lanaz, diruaz, denporeaz eta laguntasunaz besteak gure arteko bihurtzen doguz. Gaur batzen dan dirua Elizbarrutiko Caritasentzat izango da. Laguntza hori jasoko dabenen izenean, eskerrik asko zuon eskuzabaltasunagaitik.

Jaunartzeko abestia:

Abadearen agurra (bedeinkapenaren ostean)

Anai-arrebok: Eukaristian parte hartu dogu eta orain Barri Ona iragartea joatea jagoku: Jaungoikoa gu salbatzera dator. Solidarioak izan gaitzala, gizon eta emakume alaiak eta itxaropentsuak. Bera beti lagun izan daigula. Natibitate egun zoriontsua!

EGUN HONETARAKO GOGOETA

Abenduko azken domekea dogu gaurkoa. Gabonak atarian doguz. “Prestaera aldia” amaitu da. Jauna hemen dago. Itxaron aldia bete da.

Maria da domeka honetako protagonista. Berak egin ebana gogoan dogula, “gure artean dagoan Jaunari” harrera ona egiteko dei egiten jaku. Horixe bakarrik. Askotan ez jaku erraz egiten hori onartzea, hau da, ezin dogu ulertu Jaungoikoa ume babesbako egin dana. Mariak ulertu eban eta, itxuraz, ezinezkoa zana, egia bihurtu zan.

Gabon giro honetan, Maria lagun dogula, Caritasen kanpaina be ospatzen dogu. Honen bitartez, behartsuen alde izan beharko geunken konpromisoa gogorarazoten jaku eta, bide batez, Jaungoikoa behartsuengan agertzen dala ulertarazoten. Holakoa da gure Jaungoikoa!